

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Gimnasia revolucionaria.
Estricalla.
Stop control
Antirecords.
Iraupena: 14'.
10 euro.

Mezu eta musika irmo eta gogorak, txikikeriarik gabekoak

EL CORAZON DEL SAPO eta Kuraia taldeetako Fer Apoak eta Kantabriako Kloakao taldeko kideek gauzatutako proiektua da hau, orain dela gutxi sortu eta oraindik zuzenean aritu ez dena. Oihukatzea, gauzak kolokan jartzea eta jendea ohartaraztea da beraien helburua, eta horren bidean eskola zaharreko hardcorea egiten dute, bai aragoarrek eta baita kantabriarrek ere menderatzen duten lengoia delako. Are gehiago,

gauzak argiago uzteko, taldearen izenak suntsitzearen esanahia dauka aragoieraz. Hiru kantu gaztelaniaz abestu dituzte, bi euskaraz eta beste bat bietara. Horretarako, Xabier Silveirak hitzekin lagundu ditu eta El Corazon del Sapoko Guillermok eta Bap-eko Enekok ere esku hartu dute. Hitzetan eta musikan gauzak aurpegira botatzen dituzte, amorru, abiadura eta irmotasun handiarekin. Bazen ordua!

Estricalla (Fer Apoak)

«Itsaso bareak ez du marinela onik egiten»

Hardcorea da sistemari eta gizateari oihukatze modu aproposena zuretzat?

Hardcorea modu ona da, punka, metala, punk-rocka, hip-hop eta beste izan daitezkeen moduan. Beti erakarri nauena da borroka kontzientzia: gauzak aldatzeko gogoia, gustuko ez duguna salatzea, eta besteei hori ohartaraztea.

Nola jaio da Estricalla, eta zein helburu ditu?

Estricalla jaio da Kantabriako Kloakao hardcore talde mitikoaren eta nire arteko elkarlan moduan. Ez daukagu gure burua taldetzat, baizik ekintza edo oihutzat; itsasoratu berri gara eta guk ere ez dakigu norantz goazen. Rocka hain aurre-diseinatuta, zehaztuta eta mugatuta dagoen honetan, nahiago dugu ekaitza baretasuna eta ziurtasuna baino. Itsaso bareak ez du marinela onik egiten. Helburua? Luciok esaten duen moduan, "borrokatzea... eta besteei lagundu borrokatzen".

Zer ikasi dezakegu Lucio Urtubiaz eta Xabier Silveiraz?



Luciotaz ikasi dut posible dela eta bukaera arte borrokatu behar dela. Baita konstantzia, dedikazioa, pasioa eta beste. Xabitz, berriz, gauzak lasai hartzen, begiratzen, mozteko arriskua eduki arren atzamarra sartzen, kabroiagoa izaten eta gauzei bere izena jartzen.

Liburuei erreferentzia asko egiten dizkiezu. Irakurketaren iraultzan sinesten duzu oraindik?

Kultura iraultzailea da, etorkizunez kargatuta dago. Hego Amerikan ikusten dugu, kulturalki eta politikoki hezitako herriak engai-

natzeko zailak direlako. El Corazon del Saporen sasoietatik kantu bakoitzari zita bat gehitu izan diot, entzuleek erreferentziak izan ditzaten.

Zer aurkitu duzu Euskal Herrian inposizio garai hauetan?

Ba, halako garai gogorak izan arren, errebelatzen eta korrontearen aurka igeri egiten dabilen jende asko. Naufragio baten bizirauleak garelako dirudi eta guztia galduta dagoela, baina gudan sinetsi eta gure borrokatzen ilusioa izan behar dugu. ■